



Kulturaren argia

Durangoko Azokaren 53. edizioak euskal kulturaz argitu ditu Landako, azokako gune ugariak eta herriko kaleak. Oraindik asteburua faltan, jendetza espero da. • 14




Betaurreko moreak jantzita, tradiziozko kanta berriztu dituzte

Berriz | Abesti tradizionalak inklusiboago egiteko asmoz, 'Hator neska-mutil etxera' diskoa argitaratu dute Berrizko hainbat sortzailek, elkartek eta herritarrek elkarlanean. Genero ikuspegia kontuan izanda, kantuetan moldaketak egin dituzte, abestera-koan denak eroso sentitzeko helburuz. Diskoa Durangoko Azokan egongo da salgai, Durangaldeko Argitalpenen standean. Gainera, bideoklipa ere ikusgai dago interneten. Domekan egin zuten aurkezpena herrian. • 2-3

Galdeketaren aldeko sinadurak, polemika iturri

Durango | Estazioko lurretarako planari buruz galdeketa eskatzeko sinadurak polemika iturri izan dira asteon. Horien analisisia amaitu dute udalean, eta beharrezko zirenak baino 76 gutxiago onartu dituzte. Baina Erabaki plataformak ohartarazi du aurkeztutako 450 bat falta direla zenbaketan. • 4



BASERRIKO ESNEA

%100 produktu naturala, bertokoa eta kalitatezkoa
Zure herriko denda txiki eta harategietan eskuragarri

ERROTAZAR BASERRIA - BERRIZ (BIZKAIA) - Tel.: 648 400 618 - aiarbi@yahoo.es



“Abesti bat oso gutxi aldatuta inklusiboagoa izan daiteke eta, abesterakoan, denok eroso sentitu gaitezke”

'Hator neska-mutil etxera' diskoan euskal kantutegiko abestiak moldatu dituzte, genero ikuspuntua kontuan izanda. Durangoko Azokan, Durangaldeko argitalpenetan dago salgai

BERRIZ • ANBOTO

Euskal kantutegi tradizionalako abestiak betaurreko moreak jarritan entzuten hasi ziren Berrizko Kantulagun taldeko kideak. Kantatzerakoan, baina, abesti askoren letrekin deseroso sentitzen ziren. Gogoeta egiten hasi zirenean, kutsu matxista zuten letrak uste baino gehiago zirela konturatu ziren. Horrela, euskal kantu tradizionalen artean sei aukeratu eta moldaketak egin dituzte, genero ikuspuntua txertatuz. Eneritz Gorritxategi Lariz

(Berriz,1979), Miren Iturriagaetxebarria Etxabe (Berriz, 1966) eta Idoia Barceló Cuñado (Berriz, 1987) proiektuan parte hartu duten 160 herritarretako batzuk dira.

Zelan sortu zen proiektua?

Eneritz Gorritxategi: Hamabostero kantulaguneko taldea batzen gara Berrizen abesti tradizionalak abesteko. Musikariak eta hainbat berriar elkartzen gara. Batzuetan, 50 bat lagun eta, beste batzuetan, 25 bat. Beti abestu izan ditugun

kantuak irakurtzerakoan, denetan gizon eta mutil berbak agertzen direla ikusi genuen. Neu hasi nintzen kantutegi tradizionala boligrafo gorriagaz markatzen. Eta ez dago azpimarratu barik geratu den orriarik. Zer edo zer egin behar genuela pentsatu genuen. Orduan, moldaketa zelan egin pentsatzerakoan, zalantzak sortu zitzaizkigun.

Zeintzuk ziren zalantzak?

E.G.: Gaur egunekoak ere aukeratuiko ditugu? Baina erabaki dugu gaur egunekoan kasuan egileak eurak daudela aldaketa egiteko, horrela erabakitzen badute.

Zelan egin zenuten sei abesti hauen aukeraketa?

E.G.: Lagin bat egin dugu sei abesti aukeratuta, bide bat zabaldu dugu. Konturatu gara abesti bat oso gutxi aldatuta inklusiboagoa izan daitekeela eta, abesterakoan, denok eroso sentitu gaitezkeela.

Diskoaren sorreran, zelan banatu duzue lana?

Idoia Barceló: Eneritz ibili da batez ere testuak lantzen. Gero, taldeetan zabaldu zuten. Ahotsa ipintzera taldeka joan ginen Lorentzo Recordsera. Grabaketa nahiko intimoa izan zen. Polita. Bideoklipa kultur etxean grabatu genuen eta talde

bakoitzetik ahalik eta pertsonarik gehien batzen saiatu ginen. Deialdia egin genuen eta atea denentzat egon zen zabalik.

Proiektu herritarra izan dela nabarmendu duzue aurkezpenean.

E.G.: Zer egin gura genuen planteatu genuen, aldaketa zehatzak esan barik. Eta hori ahoz aho zabaldua, proiektura batu den jendetza itzela da. Hainbat elkartek eta eragilek ere bat egin dute.

“

Eneritz Gorritxategi:
“Ume askok lehenengoz entzun dituzte abesti hauek, eta horrela ikasi dituzte”

“

Eneritz Gorritxategi:
“Kantuak irakurtzerakoan, denetan 'gizon' eta 'mutil' berbak agertzen direla ikusi genuen”

Betaurreko moreak jarri dituzue. Kasu askotan ez zen erraza izango. Miren, AEK-ko irakaslea izanda, ikasleek zelan parte hartu dute?

Miren Iturriagaetxebarria: Ikasleak inplikatzeko eta abesteko prest zeuden, baina, moldaketak egitekoan, euskaraz ozta-ozta moldatzen zirenek zalantzak zituzten aldaketa horiek zelan egin. Nire helburua eurak eroso sentitzea zen. Askok eskertzen dugu gugaz gogoratu izana, proiektu oso polita da-eta. Belaunaldi askotako jendea batu duzue. Abesti horiek dakizkigunok, hein batean, letra batzuk desikastea eta belaunaldi berriek horrela ikastea da gakoa?

I.B.: Nagusienak guztiz ados zeuden aldaketekin. Umeena bitxia da. Askok lehenengoz entzun dituzte abesti hauek, eta horrela ikasi dituzte. Ez dute zuzendu beharrik. Umeek natural ikasi dute horrela. Musikan, sortzaileek parekidetasuna gero eta barneratuago duzuela esango zenuke, Eneritz?

E.G.: Gero eta gehiago. Hala ere, gaur egungoekin ere oraindik lan handia dago egiteko. Guk ez dugu ezer asmatu. Hator neska-mutil etxera interneten sartzen baduzu, hainbat horrela abestu izan dutela iku-

siko duzu. Guk gure ekarpentxoak egin gura izan dugu.

Abesti batzuetan berba batzuk moldatu dituzue, baina beste batzuetan aldaketa nabarmenagoa izan da.

E.G.: Bai, lehenengo lau abestietan berba batzuk aldatu ditugu. "Mendi altuen edurre, bota sutera egurre, alaba galanten amak mutil zantarren beldurre". Horixe da originala. "...noiz arte eukiko dogu mutil zantarren bildurre", da aldatu duguna.

Beste kopla zelan moldatu duzue?

E.G.: "Oraingo neskatilak gona motzarekin, kalean ibiltzen dira lotsa gutxiarekin" zen originala. "Kalean ibiltzen dira nahi dutenarekin/ kalean ibiltzen gara nahi dugunarekin" izan da aldaketa. Tradizio handiko koplak dira eta ez dira inoiz aldatu.

“

Idoia Barceló:
"Abesti tradizionaletan emakumeak bigarren planoan agertzen dira"

—

“

M. Iturriagaetxebarria:
"Aurkezpenean hainbeste jende eta hain anitza ikustea ederra izan da"

—

Euskal kantugintzan badira beste hainbat harribitxi matxista. Adibideren bat?

E.G.: Eta letrak zalantzan jarri barik abesten dira gainera. Adibidez, "ederregia zara zu soluan biharrerako". "Begire nago begire, noiz etorriko da maitea nire herrire". "Nire nobioaren ama, asto baten jabe dana". "Oraingo neskatilak titi borobilak, un poco más abajo saiatu

mutilak", esate baterako, aldatu ere ez dugu egingo, erabili ere ez.

Abesti eta kopletan, emakumeen zein irudi proiektatzen da?

I.B.: Batez ere, emakumeak bigarren plano batean agertzen dira, laguntzaile legez. Etxeko zereginetan ere sarri agertzen dira, edo ama lanetan. Emakume independente eta eragile legez ez dira agertzen.

Domekan bideoklipa aurkeztu zenuen Berrizko Kultur Etxean. Aretoa lepo bete zen.

I.B.: Oso polita izan zen. Jende askok parte hartu du ekimenean, eta polita izan da hainbeste talde batzea. Hainbat arlotakoak elkarlanean aritzeak ere loturak sortu ditu.

M.I.: Aurkezpenean hainbeste jende eta hain anitza ikustea ederra izan da. Aurkezpenaren aurretik bertso saioa egotea ere polita izan da.

E.G.: Gehien harritu eta emozionatu nauena hau da: Berriz ez da herri hila, baina denok batera zer edo zer egitea kosta egiten zaigu. Gai honetan oinarri bat topatu dugu. Hain jende anitza izanda! Batzuk ezagutu ere ez nituen egiten. Jendeak benetan sinistu du proiektuan. Grabaketa egunean jendea txaloka eta umoretsu zebilen. Hori handia izan da.

M.I.: Behin estudiora joan ginenean konturatu ziren ikasleak zenbat jendek parte hartu zuen. Ez zuten espero horrelako zabalkundea izango zuenik. Dimentsio handia hartu du.

Hau bide baten hasiera da.

E.G.: Kritikak ere jaso ditzakegu. Jendeak zelan erreakzionatuko du? Datorrena datorrela, intentziorik onenagaz egin dugu, sasoi hartan egindakoa errespetatuz, baina beste proposamen batzuk planteatuz.

M.I.: Hainbeste jendek proiektuagaz bat egin badu, horren alde dagoelako eta bide onetik gabiltzako izango da. Ez dugu mundua aldatuko, baina gai honetan denok egin dugu bat.





Ruiz, Durangoko PSE-EEko alkategaia: "Gobernatzen dakien ezkerren garaia da"

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Maiatzaren 26an izango diren udal hauteskundeei begira, Durangoko PSE-EEko Jesica Ruizen hautagaitza aurkeztu zuen jendaurrean joan zen egunean. "Aldaketa garaia da. Gobernatzen dakien ezkerren garaia da", esan zuen Ruizek. Hala ere, azken lau urteetan bere alderdiak udaleko gobernu taldean eginiko lana azpimarratu zuen, feminismo eta enplegu arloetan, esaterako.

Aurrera begira, alkategaia azaldu zuen herriko auzoak eraberritzea izango dela euren proposamenetako bat. Horrez aparte, enplegua sustatuko dutela ere adierazi zuen, eta alokairua gazteentzat.

Ez dute galdeketara deituko 76 sinadura falta direlako, baina Erabakik salatu du 450 "desagertu" egin direla

Amaitu da galdeketa aldeko sinaduren analisia; udalak 3.433 zenbatu ditu eta Erabakik dio 3.882 entregatu zituela

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Sinadurak aztertzeko prozesua amaitzean, bazirudien argitu egin zela estazioko lurren planari buruzko galdeketa gaia. Galdeketa egin ala ez, hor zegoen gakoa. Astelehenean amaitu zen epea, eta prentsara filtratutako udal dekretuak dioenez, gobernuak ez du galdeketara deituko, beharrezkoak baino 76 sinadura gutxiago aurkeztu zituelako Erabaki plataformak. Baina berriro piztu da polemika. Izan ere, Erabakik salatu du galdeketa aldeko 450 sinadura "desagertu" egin direla udalaren zenbaketan.

Udalean eginiko analisiaren arabera, 76 sinadura falta dira Durangoko erroldaren %10era heltzeko. 2.961 dira beharrezkoak, eta 2.885 onartu ditu aurkeztutako 3.433etatik –besteak baliorik barik utzi ditu erroldatu bakoak, adin txikikoak, zein errepikatuak izatearren–.

Erabaki taldeak bestelako iritzia dauka, oster. Plataformako kideek salatu dute emaitzek ez dutela koardatzen. "Erabakiren partetik 3.882 izan dira aurkeztutako sinadurak;



Erabaki plataformaren aurkezpenean herritar ugari batu ziren, maiatzan.

udalak, oster, 3.433 zenbatu ditu bakarrik. Beraz, 449 sinadura desagertu dira, eta, ondorioz, ez dira kontuan hartu", adierazi dute.

Horrez gainera, galdeketara ez deitzeko albisteaz prentsaren bidez enteratu direla ohartarazi dute. "Desagertutako sinadurekin zer gertatu den jakiteko asmoagaz" udalera jo dute. Euren esanetan, alkateak gaia konpontzeko asmoa erakutsi du.

Erabakik, oster, hauteskunde errolda kontuan hartzea nahikoa dela uste du

Legearen interpretazioa

Bestalde, emaitzak ulertzeko eta legea interpretatzeko ere eztabaida dago. Udalak esan du errolda osoa dela sinaduren kopuruan oinarria jartzeko iragazkia; Erabaki plataformak, oster, hauteskunde errolda kontuan hartzea nahikoa dela uste du, eta, horrela, 2.206 sinadura beharko lirakeke.

1.900 erosketa bonu aterako dituzte Durangon, merkataritza bultzatzeko

DURANGO • M.O.

Astelehenean, 1.900 erosketa bonu salgai ipiniko dituzte BBK-ko kutzazainetan, herriko merkataritza bultzatzeko. 5 euro ordainduta, 15eko balioa duen bonua jasoko da. Urtarrilaren 5era arte erabili ahaliko da.



Udaleko Iker Oveja eta Dendak Baiko Alex Palacios, sustatzaileak, aurkezpenean.

Gorka Fraile preso Kantabriako Dueso kartzelara hurreratuko du gobernuak

DURANGO • M.O.

Bigarren gradua onartu diotela eta, Dueso kartzelara hurbilduko dutela jakinarazi dio Espainiako gobernuak Gorka Fraile preso durangarrari. Beragaz batera, beste hiru preso ere hurbilduko dituztela iragarri dute azken egunetan.

Fraile Badajozeko (Extremadura, Espainia) kartzelan dago. 20 urte daramatza han, lehen graduan. 2015ean mingaineko minbizia topatu zioten, eta etxeratzeko eskatu izan dute epaitegi eta kaleetan. Etxeratek gaixo larria duten presoek zerrendan sartu zuen.



2015az geroztik, hainbat mobilizazio egin dituzte Fraile etxera ekartzeko.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko abenduaren 7a
17. urtea - 745. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Elorrion herri lasterketa egin zuten domekan.



Durango Euskaraldiko lokalean txokolata egin zuten astelehenean.

Euskaraldiko jaialdia egingo dute Durango, Zea Mays eta Gora Etorrigaz

Astelehenean amaitu zen euskararen erabilera indartzeko asmoz sortutako 11 eguneko ariketa; herririk herri amaierako zenbait ekitaldi egin zituzten Durangaldean

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Euskararen erabilera indartzeko 11 eguneko ariketa astelehenean amaitu zen, baina Euskaraldiak aurrera jarraituko du. Hizkuntza ohituretan aldaketak egiteko konpromisoa hartu duten milaka herritarrek urteko 365 egunetan jarri horri eusteko erronka izango dute orain.

Astelehenean amaierako zenbait ekitaldi egin zituzten herririk

herri, eta aipagarria da Elorrion domekan egindako herri lasterketa ere. Durango ekitaldi xume bat egin zuten, eta abenduaren 14an jaialdi handi baten txanda etorriko da, Plateruena kafe antzokian. 20:00etan ondorioak aurkeztuko dituzte, eta 22:00etan Zea Mays eta Gora Etorri taldeen kontzertuak hasiko dira. Azken hauek Durango Euskaraldirako abestia sortu dute, eta zuzenean joko dute.

"Askoz ere sakonagoa eta zabalagoa izango den aldaketa bat bultzatzeko lehen urratsa izan da"

Euskaraldiaren edizio gehiago egongo direla aurreratu dute. "Askoz sakonagoa eta zabalagoa izango den aldaketa bat bultzatzeko lehen urratsa izan da Euskaraldia".



Zaldibarren, astelehenean, Euskaraldiari agur esateko ekitaldia.

'Euskal Herrian bizi' izeneko dinamikaren berri eman du Ernai gazte erakundeak

DURANGALDEA • A.M. / M.O.
Gazteen egoera eta bizi-baldintzak aztertu dituzte Ernai gazte erakundeko kideek azken hilabeteetan, Euskal Herrian Bizi dinamikaren baitan. Horren emaitzak eta datozen hiletarako kanpaina aurkeztu di-

"Milaka etxe huts ditugu eskualdean eta 30 urtegar emantzipatzen gara gazteak"

tuzte prentsaurreko bidez, Durango estazio zaharreko eremuan.

Izan ere, bertan egin gura duten etxe dorreena da gazteek salatu-tako proiektuetako bat. "Durango hiri gris bihurtzera bidean doa, makroproiektuek itsututa", adierazi dute.

Langabeziak eta prekarietateak gazteiarengan duen eragina ere azpimarratu dute. "Milaka etxe huts ditugu eskualdean, eta 30 urtegar emantzipatzen gara gazteak", azaldu dute.



Ernaiko kideak, Durango azaroaren 24an eginiko agerraldian.

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto 
komunikabideak

 **urtxintxa**
jostailu denda

Azoka on bat opa dizuegu

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

 **Bizkarra**
latetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026
burdi-kurutze@hotmail.com

Ez daukazu janaria prestatzeko astirik?
Guk lagunduko dizugu
Etxera eroateko janaria, betikoa, etxekoaren modukoa

Zornotzako Larrea auzoan, ikastolaren ondoan, umeendako jolasgune bat egingo dute

Aurrekontuak lantzeko herritarrekin egindako prozesu parte-hartzaitik irten den bost proiektuetako bat da



Naturagaz bat egingo duen jolaslekua izango dela aurreratu dute udal arduradunek.

ZORNOTZA • ANBOTO
2019ko aurrekontuak onartu dituzte Zornotzan, eta inbertsioen atalean herritarrek proposatutako bost proiektu jaso dira, aurten lehenengoz egindako prozesu parte-hartzaitik irten direnak. 375.900 euro jarriko dituzte proiektu horietarako.
Larrean umeendako jolasgune bat egingo dute Andra Mari ikastolaren eta aparkalekuaren artean dagoen eremuan. Bertan dauden berdeguneak eta zuhaitzak aprobetxatuz, naturan integratuta egongo

375.900 eurogaz herritarrek aukeratutako bost proiektu gauzatuko dituzte 2019an
den jolasgunea izango dela azaldu dute udal ordezkariak.
Ikasgela berria Konbenion
Zelaieta Zentroan ikasleei bideratutako gelak daude, baina herritar batzuek ordutegi zabalagoko az-

piegiturak eskatu dituzte. Ildo horretatik, “urteko egun denetan eta ordutegi zabal batez” erabilgarri egongo den ikasgela berri bat egingo dute Konbenio kalean, Andoni Agirrebeitia alkateak dioenez.
Ikasgela berria "urteko egun denetan eta ordutegi zabalagoagaz" egongo da zabalik
Horrez gain, San Miguel auzoko udal eskola berriztatzea, Arraibiondon jolasleku berri bat egitea eta Ixeranen argiteria jartzea dira herritarren mandatuari jarraituz Zornotzako Udalak egingo dituen beste hiru proiektu.

San Miguel auzoko udal eskola berriztu eta Arraibiondon jolasleku bat egingo dute

Andra Mari plazan lokal berria inauguratu du Zornotzako EH Bilduk

Herritarrek EH Bilduren proposamenak jakiteko edo ekarpenak egiteko joan daitezke bilgune berrira

ZORNOTZA • ANBOTO
Zornotzako EH Bildu alderdiak lokal berria inauguratu zuen joan zen asteburuan. Andra Mari plazako 4. zenbakiko baxuan dago. "Bilgunea herritarrei zabalduriko gunea izango da. Bertan, herritarrek EH Bilduren proposamenak ezagutzeko eta ekarpenak egiteko aukera izango dute, baita euren

beharrizan edo eskakizunak helarazteko ere", azaldu dute euren webgunean alderdi abertzalekoek. Lokala, momentuz, astelehen eta eguen arratsaldetan egongo da zabalik.
Lokala zabaltzeko ekitaldian, Ander Uriarte EH Bilduko alkategaiaren jendaurreko aurkezpena ere egin zuten.



Ander Uriarte alkategaia lokalaren aurkezpen ekitaldian.

Garaiko 19 umek Ludotekako ekintzez gozatuko dute, hilaren 15ean hasita

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Herriko umeei aisialdi eskaintza ugaritzeko asmoz, Ludoteka zerbitzua eskainiko du udalak hilean behin. Abenduaren 15ean hasiko da ekimena eta
Irteera bi egingo dituzte eta, beste egunetan, jolasetan eta tailerretan parte hartuko dute

maiatzera arte iraungo du. Zapatueta izango da beti. Inskripzio epea amaitu da eta 19 umek eman dute izena. Irteera bi egingo dituzte eta, beste egunetan, jolasetan zein tailerretan parte hartuko dute.

Informatika ikastarorako izen-ematea zabalik hilaren 15era arte

OTXANDIO • ANBOTO
Otxandion askotariko ikastaroak emango dituzte eta euretarako bat informatikari buruzkoa da. Izen-ematea abenduaren 15era arte egin daiteke, udal txean edo liburutegian. Aukera bi daude: interneti buruzko oinarrizko nozioen ikastaroa eta smartphone eta tablet gailuak erabiltzeko ikastaroa. Lehenengo urtarilaren 7tik 18ra izango da eta bigarrena urtarilaren 21etik 29ra emango dute.

Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte garaile trikitilari gazteen txapelketan

ZALDIBAR • A.M.
220 entzuleren aurrean egindako Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXVII. txapelketako irabazleak Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte izan dira. Sanandres jaietan izaten da txapelketa hau eta, aurten ere, horrela izan da. Sei bikote gaztek parte hartu dute txapelketan, guztiak gipuzkoarrak. Olazar pilotalekuan jokatu zen finala, eta giro aparta bizi ahal izan zen. Horrez gainera, Euskaraldiko lantaldea omendu zuten jaien hasieran.



Marije Apodaka eta Leire Milikua, Nikaraguan.



Joan zen asteen, Idoia Buruaga Elorrioko alkateak harrera egin zien udaletxean.

Landa eremuko emakumeen egoera garatzeko asmoz, elkarlanean dabilta Elorrio eta Nikaragua

Joan zen asteen, Nikaraguako lau ordezkari Elorrion eta Durangaldeko beste hainbat herritan egon ziren, eskualdeko landa eremuko emakumeen egoera ezagutzeko asmoz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bultzatutako programa bati esker, Elorrioko Udala eta Nikaraguako iparraldeko hainbat komunitate elkarlanean dabilta.

Azaro hasieran Marije Apodaka Elorrioko Udaleko teknikaria eta Leire Milikua abadiñarra Nikaraguara joan ziren landa eremuko emakumeen errealitatea ezagutzeko asmoz. Joan zen asteen, Nikaraguako

Marije Apodaka Elorrioko Udaleko teknikaria eta Leire Milikua abadiñarra Nikaraguan egon ziren

lau ordezkari hemen egon ziren. Euskal Herrian egon ziren egunetan bertako emakume baserriarren egoera ezagutu zuten, eta baita bertako ekoizle txikien egoera ere. "Euskal Herriko egoeratik oso urrun gaudela ohartu gara. Hala ere, hona etorri eta hau ikustea babes moduko bat izan da guretzat", esan du Lejan Mora nikaraguarra.

Nikaraguarrek euren egoeraren berri ere eman zuten. Maria Leticia Herrera Ederprosasa erakundeko presidenteordeak, esaterako, baratzak etxe ondoan jartzeko prozesua azaldu zuen. "Ongarri aproposa lortu dugu eta, horri esker, lurra asko hobetu da eta baratzak etxe ondora ekarri ditugu".

Bestalde, munduko emakumeen artean saretzeko aukera aproposa dela esan zuen Idoia Buruaga Elorrioko alkateak. "Amestutako Elorrio sortzen jarraitzen dugu, Elorriotik Mundura, Mundutik Elorrion", adierazi du alkateak.

Estetika gida

anboto



90eko pixie estiloa

Jon Sopelana (Iunik)

IUNIK | Modan dagoen estiloaz eta bezeroei eskaintzen dieten arretaz berba egin du Jon Sopelana.

Zein estilo dago modan orain?

Modari dagokionez, pixie estiloko mozketak ugari egiten ari gara. Farandularen munduak eragina du jende askorengan, eta hori igarri egiten da ile-apaindegian.

Zelan zaindu ahal dugu ilea sasoi honetan?

Udazkenean, eguraldi txarraren ondorioz, gure ileak sufritu egiten du eta

garrantzitsua da galtzen dituen propietateak berreskuratzea. Iuniken, edertasun osasuntsu eta kontzienterako dugun sistemagaz, ileari zein buruko azalari euren izatezko energia eta edertasuna bultzatzen dizkiegu. Purutasun handieneko aktibo botanikoei esker lortzen da hori.

Bezeroen arreta zelan eskaintzen duzue?

Edertasunaren pertzepzioa zabaldu egiten dugu garatutako lan bakoitzean. Une bakoitza espazio bakarra da, bezeroak bere irudiaren eguneraketa egiten duena, eta bizitzaren transzendentzia deskubritzen duena. Eskerrak eman gura dizkiegu gure ofizioaren garrantziaz kontzientzia erakutsi duten bezeroei, gure sormena presente edukitzeagatik eta eurek zaintzean ematen duten zoriontasunagatik.



Ile-apaindegia

NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Iñaki Retaren askatasuna aldarrikatzeko, manifestazioa

Preso elorriarraren aldeko manifestazioa abenduaren 15ean egingo dute, 18:30ean, Elorriko plazatik hasita

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bada garaia! Iñaki gurekin! lema-pean manifestazioa egingo dute abenduaren 15ean, 18:30ean, Elorri. Retaren senitartekoei jakitera eman dutenez, abenduaren 17, 18 eta 19an Parisen epaituko dute, eta bere askatasuna aldarrikatzeko asmoz egingo dute manifestazioa.

Iñaki Retak hamalau urte egin zituen kartzelan, 1982tik 1996ra,

ETAko kide izatea leporatuta. 2008an berriro auziperatu zuten, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren kontrako auzian, Askatasunako kide izateagatik. 8 urteko kartzela zigorra ezarri zion Audientzia Nazionalak eta urte bereko abenduan klandestinitatera jo zuen.

2015ean Frantzia atxilotu zuten, eta, orduz geroztik, Fresnesko kartzelan dago.



Martitzenean egin zuten ekitaldia Retaren lagunek.

Ainara Ganboa EAJko zinegotziak dimisioa aurkeztu du Atxondoko Udalean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon egindako osoko bilkuran, Ainara Ganboa EAJko zinegotziak dimisioa aurkeztu zuela jakitera eman zuen David Cobos alkateak. Cobosek adierazi zuenez, udalera gutun bat bidalita agertu zuen Ganboak bere asmoa. 2015az geroztik izan da Atxondoko Udaleko zinegotzia, Gorka Garate, Xabier Azkarate eta Enrique Garate alderdiki-deekin batera; legegintzaldi bakarra egin du.

Ekainaren 3ko euriteek 317.000 euroko kalteak eragin zituzten Atxondon

ATXONDO • M.Z.

Ekainaren 3an, eguerdian hasita, erruz egin zuen euria Durangaldean, eta Atxondo izan zen herririk kaltetuena.

Aste honetako bilkuran David Cobos alkateak ohartarazi duenez, euriteek 317.000 euroko kalteak eragin zituzten. Hori ordaintzeko, Bizkaiko Diputazioak 256.000 euroko laguntza emango dio Atxondori, eta gainerako 57.000 euroak udalak berak jarri beharko ditu.

Bidegain eta Gabiola oinezkoentzat berrurbanizatuko dituzte Berrizen

6.110.000 euroko aurrekontua onartu du Berrizko Udalak EAJren aldeko botoekin



Bidegain eta Gabiola kaleak berrurbanizatuko dituzte.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenean 2019rako udal aurrekontua onartu zuten Berrizen, eta bertako proiektu aipagarrienetako bat Bidegain eta Gabiola kaleen berrurbanizazioa da. Orland Isoird Berrizko alkateak jakitera eman duenez, oinezkoen segurtasuna bermatzeko egingo dituzte lan hauek batez ere. Horrez gain, autoentzat aparkaleku gehiago ere jarriko dituztela jakitera eman zuen. Lan hauek egiteko, 350.000 euroko diru atala bideratuko du Berrizek.

Horrez gain, besteak beste, 150.000 euro bideratuko dituzte aurrekontu parte-hartzaileetarako, 57.000 euro Legañoako basoak erosteko, eta 25.000 euro Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrerako.

Asteon onartutako 6.110.000 euroko aurrekontuari —iazkoak baino 372.000 euro gehiago

aurrekontua— EAJko zinegotziek baino ez zioten eman baiezko botoa; EH Bilduk ezezkoa eman zuen eta PSE-EEko zinegotzia ez zen bilkurara agertu. "Ezin dugu aurrekontu hauen alde egin, eta horrek min ematen digu. Baina ez dira gure gustukoak, ez formagatik ez

edukiagatik. Ez dakigu ze ikusmiragaz egin diren, zelako herria gura duten berriztarrek", adierazi zuen Gorka Camara EH Bilduren bozeramaileak. Gainera, aurrekontuak "presa handiagaz" egin direla esan zuen. Bestalde, "Aldundiko udalkutxarekiko menpekotasuna" edukitzea ere kritikatu zuen.

Azken urteetan lez, 150.000 euro bideratuko dituzte aurrekontu parte-hartzaileetarako

Berrizek Aldundiko udalkutxagaz "menpekotasuna" duela esan zuen EH Bilduk

Berriz Susaren zorra

Azken urteetan lez, Berriz Susa sozietatean gertatutako irregularitasunaren ondorioz 1,8 milioiko zorra ordaintzen jarraitzen du udalak. Isoirden hitzetan, aurtien sozietatea "likidatzea" da udalaren asmoa. Camarak, oster, azken hiru urteetan "berdina" esan dutela aurpegiratu zien jeltzaleei. "Zor hau sekulako galga da herritarrentzat", amaitu zuen EH Bildukoak.

Lekuan lekuko egutegia

2019
Durangaldeko egutegia

Ohiko lekuetan eta Durangoko Azokan Durangaldeko argitalpenak stand-ean (Barrenkale 39-40) eskuragarri!

anboto
komunikabideak

Anboto
Komunikabideak

@anboto

@anbotokomunikabideak

2€

Aparkaleku bat egingo dute Mañariko sarreran, Santa Kurtze pareko parkea dagoen lekuan

Proiektua garatzeko, Mañariko Udalak 100.000 euroko diru atala gorde du 2019ko aurrekontuetarako



Santa Kurtze gurutzokiaren pareko parkean 35 bat autorentzako tokia egon daitekeela kalkulatu dute.

MAÑARIA • ANBOTO

Joan zen asteen, 2019ko aurrekontuak aho batez onartu zituzten Mañarian. 940.200 eurotan parekatu dituzte sarrerak eta irteerak. Inbertsioetako diru atal

nagusia, 100.000 euro, aparkaleku berri bat egitera bideratu dute. Gobernu taldearen (EH Bildu) proposamena Izurtzatik Mañarirako sarreran egitea da, Santa Kurtze gurutzokiaren parean dagoen

Aparkalekua egiteko, beste kokaleku batzuk ere begiratuko dituzte, EAJgaz horixe adostuta

parkean; hau da, parkea aparkalekuarengatik ordezkatzeari. Lurzorua udalaren jabetzakoa da eta 35 bat autorentzako tokia izan dezakeela kalkulatu dute. Herrian aparkalekua egiteko dauden beste

alternatiba batzuk ere aztertuko dituzte, EAJgaz konpromiso hori hartu dutelako.

Basoak erosteko atala

Baso jabeak kezkatuta daude pinuek duten gaixotasunagatik, eta baso edo pinudiak euren balioetik behera saltzen ari dira, ez dutelako beste aukerarik. Egoera horretaz ohartuta, udalak beste alternatiba bat eskaini gura die: basoak udalari saltzea. Merkatuan “konpetentzia sortzea” edo

Basoak euren balioetik behera saltzen dabiltzanek, jabeek beste alternatiba bat eskaini gura diete

gutxienez jabeek “prezio dezentetara” bat eskaintzea da helburuetako bat, Jaio alkatearen esanetan. “Monokultiboaren kontra eta beste eredu baten alde” egiteko modua ere badela uste dute, pinua eukaliptoak ordezkatu dezakeelako. Aurrekontuetan 4.000 euroko diru atala sortu dute. Kantitate “sinbolikoa” da eta diru atal bat sortzea bera zen helburua.

Aurrerago, zenbateko hori handitu egin ahal izango dute, beharri-zanaren arabera.

"Azken urte honetan istripu asko eta oso larriak egon dira Smurfit paper fabrikan"

Iurretako Smurfit Kappa Nerbioiko Enpresa Batzordeak "segurtasun falta" dagoela salatu du prentsa ohar bidez

IURRETA • ANBOTO

Smurfit Kappa Nerbioiko Enpresa Batzordeak paper fabrikako segurtasun neurriak kritikatu ditu. Azaroan enpresan izandako hiru sute jarri dituzte adibide moduan segurtasunik eza salatzen.

Horrez gainera, lan istripuren bat gertatu ostean enpresak gertaera “ezkutatu” egin duela salatu

dute, “euren interesen onuragatik”, langileen ustez. “Azken urte honetan istripu asko eta oso larriak egon dira; momentuz, zorionez, hilik barik”. Enpresa Batzordearen esanetan, prebentzio ordezkariak egoera “behin eta berrin” salatu dute Segurtasun eta Lan Osasuneko Batzarrean, baina aktetan ez dela agertzen esan dute.



Enpresa Batzordean ELA eta LAB sindikatuak daude.

Anderebideren azoka solidarioak astelehenean zabalduko ditu ateak

IURRETA • ANBOTO

Abenduaren 10etik 14ra egongo da elkartasun azoka zabalik. Han batutako dirua La Otra Mirada elkarteari emango diote. Ibarretxe kultur etxean egongo da azoka, eta han, ohi bezala, jostailuak, askotariko arropa, liburuak eta bitxiak ezohiko prezioan aurkitu ahalko ditu bertaratzen denak. 09:00-12:30 eta 16:00-19:00 bitartean egongo da zabalik. Aurtengoa seigarren edizioa du Anderebideren elkartasun azokak.

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Ortu ekologikoetara aurkezteko aukera izango da Mallabian, hilaren 28ra arte



MALLABIA • ANBOTO

Udalbatzarrak Mallabiko ortu ekologikoak erabiltzeko eta ustiatzeko arautzen duen baldintzen plegua onartu ostean, eskaerak aurkezteko epea hasi dute. Mallabiko udal bulegoetan egin daiteke eskaera, abenduaren 28ra bitartean.

Aurkezten diren guztien artean zozketa publikoa egingo dute orturako partzelak banatzeko

Baldintzen gaineko informazioa udaletxean edo udaleko webgunean eskuratu daiteke. Ortuen kontzesioak lau urterako izango dira. Partzelen esleipena zozketa publiko bitartez egingo da.

Izurtzako Udalak prest dauka Gaztelekua erabilera anitzeko gune bihurtzeko proiektua

Egitasmoak 169.000 euroko aurrekontua aurreikusten du; lanak 2019ko lehen hiruhilekoan esleitu gura dituzte

IZURTZA • ANBOTO

Gaztelekua erabilera anitzeko gune bihurtzeko egitasmoa aurrera doa apurka. Izurtzako Udalak esku artean du dagoeneko proiektua. Aurrekontuetan diru atal bat sortu ostean, baldintza orria landuko dute eta lanak 2019ko lehenengo hiruhilekoan esleitzea da helburua. 169.000 euroko inbertsioa aurreikusten du.

Espazioa bitan zatituta dagoenean, 30 eta 40 metro karratuko gela bana sortuko dira

Espazio berriak "ahalik eta erabilerarik zabalena" izatea gura dute, Lorea Muñoz alkatearen berbetan, eta ideia hori izan da proiektuko zutarrietako bat. Horrela, barruko espazioa gela bakar baten moduan erabili ahalko da, baina, beharizanaren arabera, gela bitan ere zatitu daiteke, itxitura moduan horma mugikor bat erabilita. Bitan zatituta dagoenean, 30 eta 40 metro karratuko gela bana sortuko dira.

Erabilera anitzeko guneak komun berriak izango ditu eta ez



Gaztelekua barrualdea zelan geratuko den erakusten duen irudia.

gaur egun dagoen tokian, baizik eta beste aldean. Horrez gainera, materiala gordetzeko armairuak ere jarriko dituzte.

Eraikina eraberritu

Espazioa berrantolatzeaz gainera, eraikina eraberritu egingo dute. Argiteria berriztu eta aireztapen zein berogailu sistemak jarriko dituzte,

eta hormei hezetasunaren kontrako tratamendua emango diete.

Eraikineko argiteria berritu eta aireztapen zein berogailu sistemak jarriko dituzte

Horrez gainera, kanpoko argitasun naturala hobeto aprobetxatzeko, plazarako tunelaren aldetik leiho berriak egingo dituzte.

Gaztelekua erabilera anitzeko gune bihurtzeko ideia Tokiko Agenda 21eko batzar batean bururatu zitzaion, iaz. Harrezkero, udala egitasmoa aurrera eramateko pausoak ematen ari da.

Muntsaratzen biribilgunea eskatzeko sinadurak biltzen hasi dira berriro auzotarrak

Aurreko sinadura bilketan 704 lagunen babesa lortu zuten



ABADIÑO • A.M.

Muntsaratzeko sarbideari konponbidea emateko, lau proposamen biltzen dituen gutuna idatzi du auzotar talde batek: ibilgailuen fluxu berriaren azterketa egitea, emaitza horietara semaforoak

programatzea, semaforo hauek oinezkoak lehenestea eta biribilgunea egitea. Sinaduren bitartez eskaera babesteko eskatu diete abadiñarrei. Aurretik eginiko proposamena 704 lagunek babestu zuten.

OHZren igoeragaz haserre, herritarrek udal aretoa bete dute berriro Abadiñon

Urriko bilkurara joan ziren herritarrek "herriari jaramonik ez egitea" leporatu zioten Jose Luis Navarro alkateari



Hainbat herritar joan ziren bilkurara euren haserre adieraztera.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

"Alkatetzara eraman zintuzten bere garaian herritarrek, eta orain ez diezu kasurik egiten herritar horiei" kargu hartu zioten Jose Luis Navarro alkateari bilkurara joan ziren hamarka herritarrek. "Oraindik ez duzu azaldu zergatik igo zenuen OHZ zerga %0,32ra. Durango moduko herri batean, adibidez, %0,29an dago", kexatu ziren. Horrez gainera, auzoetan zerbitzuak ez direla igartzen adierazi zioten han bildutakoek.

Navarro alkatearen berbetan, diru-laguntzei esker OHZ baxuena ordaintzen dute Abadiñon

Navarro alkateak gutun baten bidez erantzun die herritarrei, udalaren diru-laguntzari esker Abadiñoko baserritarrek Durangaldeko OHZ merkeena ordaintzen dutela esanez.

Hareek denporak!

Diskoak Andra Marian, eta liburuak merkatu plazan

Durangoko Azokak Andra Mariko elizpean eman zituen bere lehen pausoak, 1965ean, eta 1974an merkatu plazara lekualdatu zuten. Antza denez, aurreko edizioetan azokak hartutako oihartzuna ez zen sasoi hartako gobernadore zibilaren gustukoa. Erljio arrazoiak aipatu eta Andra Mariko elizpean egitea galarazi zuen. 1996an Landako zabalgunera joan arte, merkatu plazan egin zen azoka.

Baina, 1985eko argazki honek erakusten duen lez, bere sorlekura bueltatu zen azoka, edo, behintzat, zati bat. Urte hartan, jende pilaketak saihesteko asmoz, liburuak merkatuan ipini zituzten, eta diskoak Andra Marian. Joseba Sarrionandiak, Txelu Angoitiak eta Jesus Mari Arruabarrenak kaleratutako *Durangoko azoka 1965-2015* liburuan topatu daitezke argazki hori eta askoz gehiago. **M.O.**



GEREDIAGA ELKARTEA

Politikan

Dani
Maeztu Perez
EH Bildu



Galdeketa ez?

Gasteizko legebiltzarrean aurrekontuen proposamena aurkeztetakoan, hango EH Bildu legebiltzar taldekoek aurrekontu proposamenen Durangoko trenbidearen lurzorua zena urbanizatzeko proposatutako diruaren inguruan galdetu ziguten. "Durangotik zer deritzozue diru partida honi buruz?" Gure erantzuna oso zehatza izan zen: "Kontuan izanik bertan egin beharrekoaren inguruan herri galdeketa bat aldarrikatzen ari dela, zergatik ez diozue galdetzen Jaurlaritzari herri galdeketa irtetzen dena errespetatzeko asmoa duen". Jaurlaritzaren erantzuna oso zehatza ere izan zen: "Jaurlaritzak ez du aurrekusten galdeketa, ez eta honek proiektua baldintzatzerik". Zur eta lur gelditu ginen.

Herri galdeketa antolatzea ala ez Durangori dagokio. Argi dago Durangon, kolore politikoetatik harago egitasmo urbanistiko horren inguruan jakin nahia dagoela, herritarrek informazioa eta iritzia ematea eskatzen dutela. Nor da orduan Jaurlaritza galdeketa aurrekusten ez dela esateko? Aste honetan horren erantzuna jaso dugu, eta bai, Jaurlaritza bada nor. Durangoko udal gobernuak, Jaurlaritza dauden lehengusu txikiak, iragarri du herri galdeketa ez dela egin behar. Erabaki plataformak aurkeztutako sinadura guztiak zenbatu barik, esan die 76 sinaduraren faltan geratu direla. Aurretik ahal izan dituen oztopo burokratiko guztiak jarri ondoren, herri galdeketa deitzeko 76 sinadura falta zaizkiela esan die. 2.885 herritarrei esan die euren sinadura ez dela nahikoa herri galdeketa batera deitzeko. Eta nik galdera bat egiten diet gainerako 26.000 durangarrei: "Ados zaudete gure herriaren egitura urbanistikoa betirako baldintzatuko duen proiektua bulego batean erabakitzeaz? Horrela ez bada, oraindik aukera daukazue herri galdeketa hori behartzeko".

Durungaldea asteen

Odolosterik onena zein den aukeratuko dute asteburuan Elorrion, Buzkantz Jaian

Elorrio 2013az geroztik, Elorrion odoloste txapelketa egiten dute abenduan. Hilaren 8an eta 9an, Elorrioko Udalak antolatuta eta Elorrioko Merkatarik Elkarrekin eta Iturizoro Elkarrekin lagunduta, seigarrenez egingo dute Buzkantz Jaia. Asteburu osoan zehar, herriko zenbait tabernatan pintxo bira egingo dute, eta domekan odoloste txapelketa eta dastatzea.

Marixurriken hezitzaile lez lan egin gura dutenek curriculumak bidali ditzakete

Atxondo Marixurrike Asialdi Elkarrekin begiraleen lan poltsa osatzen dabil hezitzaile lanpostua betetzeko. Interesa dutenek abenduaren 14ra arte izango dute aukera curriculumak entregatzeko. Curriculumak marixurrikedok@gmail.com helbidera bidali edo ludotekan itxi beharko dira, astelehenetik barikura, 16:30etik 18:30era bitartean.

Jostailu eta arropa bilketak egingo dituzte Durangon eta Berrizen

Durungaldea Bosgarren urtez, jostailu eta arropa bilketa egingo du Podemos-Ahal Duguk Durangon, baita Berrizen ere. Durangon abenduaren 13tik 15era bitartean eman ahalko dira jostailu eta arropak, Ahal Duguk Goienkalen duen egoitzan. Berrizen, osterara, abenduaren 12 eta 14an, Olakuetan dagoen antzinako Gizarte eta Ongizate zentroan.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

GUTUNA

Orain dela hiru aste, 9:50ean Landakon, Matienara bidean, autobusa bat ziztu bizian pasatu zen zebrabidea errespetatu barik. Gauean ere hegan egiten dute, 80 kilometro orduko abiadura gutxi gorabehera. Udaltzaingoari jakinarazi zaio. Ibilgailu gehienak ez dira zebrabidean gelditzen, eta gelditzen direnek ez dute pasatzeko denborarik uzten.

JUAN ANTONIO DUÑABEITIA (DURANGO)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza
gerentzia berria

Intxaurrondo, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499

Hartu atsedena ditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Naturopatia
PSE: 49/18

NAROBÁ
Naturopatia eta masaje zentrua

Masaje deskontrakturantea
Drenatze linfatikoa.
Osteopatia.
Tratamendu naturalak
Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behea. Durango
675 706 599
www.naroba.net

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
alterazio dermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Durangoko Azokako lehen sormen bekagaz rol joko baten liburua argitaratuko dute

Martxan dago Durangoko Azokaren 53. edizioa; asteburuan jendetza espero dute, eguraldi ona lagun dela

DA! • A.M / M.O.

Etzi Portu Maritimoa taldeak irabazi du Durangoko Azokaren lehenengo sormen beka, *ATOPIA*rg proiektuagaz. Euskaraz sortu eta argitaratuko den lehen rol jokoaren liburua ahalbidetuko du bekak. Atzo egin zuten sari banaketa, azokaren bigarren egunean. Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentea pozik agertu zen sormen bekak eduki duen harrera onagaz. Izan ere, guztira, 28 proiektu aurkeztu dira bere lehen edizioan.

Etzi Portu Maritimoa taldea Xabier Landabideak, Galder Gonzalezek, Beñat Irasuegik, Oihana Calparsorok, Yeray Gasconek, Unai Gorrotxategik, Gorka Salcesek eta

Eneko Olazabalek osatzen dute. "Jendea behar dugu guztia idazteko. Horrek aberastu egingo du, eta, azken finean, prozesua bera

2019ko Durangoko Azokan aurkeztuko dute 'ATOPIA'rg proiektu garailea

Nerea Mujika pozik agertu zen sormen bekak eduki duen harrera onagaz

jolas bilakatuko du", azaldu zuten aurkezpenean. 2019ko Durangoko Azokan aurkeztuko dute *ATOPIA*rg proiektu garailea, eta "rol partida erraldoi bat" abiaraziko da proiektua bera sustatzeko.

Domekan, 'Txotxe'-ren 'Ametsen faktoria' liburua aurkeztuko dute, 11:30ean

Kulturaz beteta

Eguaztenean hasi zen 53. Durangoko Azoka, ikasle uholde batez. Kanpoan, oster, ez da uholderik izan; eguraldiak lagunduta, jende asko espero dute astebururako. Durangaldeko sortzaileei dagokienez, Eider Eibarrek ilustratutako liburuaren aurkezpena izango da bihar, 13:00etan, Saguganbaran; Unai Iturriagarena 18:30ean, Aho-tsenean; leku berean, baina domekan, *Txotxe*ren *Ametsen faktoria* liburua aurkeztuko dute, 11:30ean. Irudienean, Eneko Sagardoy antzezle duen *Soinujolearen semea* estreinatuko dute bihar, 11:30ean (sarrerak agortuta), eta etzi Mikel Urdangarini buruzko *Margolaria* (10:30) ere bai. Gainera, Lara Izagirrek *Ane eta Peio* filmaz berba egingo du jarraian. Bestalde, bihar Joseba Jakaren omenezko lasterke-ta egingo dute, 11:00etan hasita.





GAURSA

#GAURSAEUSKARAZ ORAIN ETA BETI

GAURSA EUSKARALDIA 11 EGUN EUSKARAZ EKIMENARI BATU ZAIO.

Euskaraldia sakon sartu da Gaurसान. 11 egun hauetan euskararen zabalkunde eta erabilpenarekin parte hartu du enpresak.

Taldeak eginkizun hau barneraturik du bere egunerokotasunean. Hastapenetatik, jatorriz lurretakoa den talde euskaldunak inguruko kultur eta kirol ekintzak sustatu ditu, euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatuz. Azken egun hauetan konpromisoa indartu du sare sozialen bidez batez ere.

Gaurساكو profilek Euskaraldia arnastu dute, komunikazio guztiak euskaraz egin dira eta langileak

Ahobizi eta Belarriprest txapen bidez identifikatu dira beren eguneroko lanean, sare sozialetan taldeko instalazio desberdinetako langileen argazkiek erakutsi duten bezala.

Ekimena ez da hemen bukatzen. Gaurسا bere jardueran euskararen erabilera normalizatzen du, bezeroekin harremanetarako erabiliz, instalazioen normalizazio eta seinaleztapenean. Egutero euskaraz bizitzeko erronka.



www.gaursa.com



"Gure herria asko aldatu da eta artea horren isla zuzena da"

1968-2018 urteetan arteak Euskal Herrian izandako bilakaeraren kronologia egin du Mikel Onandia durangarrak Bilboko Arte Ederren Museoak egindako katalogorako

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Arteen historiako irakaslea da EHUn Mikel Onandia (Durango, 1983). Bilboko Arte Ederren Museoako '68aren Ostea' erakusketako katalogoa egiten parte hartu du, kronologia osatuz. Azken bost hamarkadetakoa artea eta praktika artistikoa aztertu ditu erakusketak ikuspegi dokumentalista batetik.

Garai hori, garrantzitsua izan zen Euskal Arteen?

Euskal arteari buruz, XX. mendetik aurrera hitz egin daiteke, aurretik kontzeptu hori ez zelako existitzen. Artea egiten zen, baina ez zegoen Euskal Arte bezalako kontzepturik. 50 urte hauetan asko aldatu dira gauzak; gure he-

rria asko aldatu da, eta artea horren isla zuzena da.

Ekarpen handia egin dizu lanak, profesional moduan?

Ikuspuntu akademikotik gehiago landu ditut XX. mende hasierako arte modernoa eta garaikidea, baina bai landu ditut hauek ere komunikabideentzat kritikak eginez, adibidez. Ez da nire espezializazioa baina ezagutzen ditut. Katalogoa egitea master txiki bat egitea bezala izan da. Urtebetez lan honetan murgilduta egon naiz; liburutegian sartuta. Jakindako batzuk baieztatu dizkit, eta gauza berri piloa irakatsi.

Zugazaren ekarpena igarri da?

Bere etorrera onerako izango dela uste dut. Oraindik goiz da, baina igarriko da. Doktorego tesia Arte Ederreko Museoari buruz egin nuen, eta sortu zenetik, beti jarri izan du arreta euskal arte lokalean, ez bakarrik horretan, baina bai. Eta horrek tentsioa eragin du. Batzuen ustez, arte ederren museo

moduan, artista kontsagratuentzako soilik behar luke; garaikidearen alde egin dute beste batzuek. Urte hauetan tentsio hori mantendu da. Azken urteetan ez bezala, Zugazak berriro jarriko du arreta produkzio garaikide lokalean, erakusketa honetan egin bezala, eta hori eskertzekoa da.

Museo batek ze helburu izen behar duen galdetu behar diogu gure buruari. Museoak gorde, erakutsi eta dibulgatu egin behar du; egin dena gorde, baina arreta jarri behar du momentuan egiten ari denean ere. Bilduma bat egiterakoan, momentukoaren errepresentazio bat egin behar du museoak. Zentzu horretan, bilduma itzela du Bilboko Museoak.

"Katalogoan parte hartzea master txiki bat egitea bezalakoa izan da niretzat, aberasgarria"

Amuriza, 'Abarkas' eta Bizkarra, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean

BERTSOLARITZA • A.M.

Miren Amurizak, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek eta Aitor Bizkarrak abenduaren 15ean Bilbon jokatu den Bizkaiko Bertsolari Txapelketan abestuko dute. Lekeition jokatu azken finalurrekoan erabaki zen nortzuek osatuko zuten finaleko zortzikoa. Txaber Altube abadiñarrak bertan abestu zuen, baina ez zuen finalerako txartela lortu. Eskualdeko hiru ordezkariekin batera, Nerea Ibarzabalek, Jone Uriak, Xabat Galleitebeitiak, Etxahun Lekuek eta Onintza Enbeitak abestuko dute Bizkaiko txapela janzteko lehian. Finala abenduaren 15ean jokatu da, 17:00etan, Bilbao Arenan. Sarrerak Durangoko Azokan erosi ahalko dira.



Eskualdeko hainbat saritu 'Esker Onak' ekitaldian

DANTZA • A.M.

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrrak Karmelo Barruetabeña, Gerediaga elkarte eta Jose Jaber Abasolo *Tiliño* omendu ditu *Esker Onak* ekitaldian. Dantza tradizionalagaz eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarragaz lotura duten pertsona eta elkarteei esker ona emateko ekitaldia da hau. Barruetabeñak *Tiliño*ren eskutik jaso zuen oroigarria. Durangaldeko txistulariek eta Iurretako dantzariak ere parte hartu zuten.

Gai librean

Libe
Mimenza Castillo
Kazetaria



Trap(u)a

Zaharrak trapuak dira. Ez trapa. Gure zaharrek ez zuten trapik ezagutu. Gaurko umeentzat trapa izango da noizbait zaharra. Gure belaunaldi gazte honentzat Lekeition bezala, mundura ekarri gintuzten urte hartan berri baten berri honen doinu zaharra, guk orduan ez bat eta ez beste erabaki ez bagenuen ere. Sasoi hartan Youtube existitu izan balitz herri auzi bilakatuko ote litzateke Laboaren orroen egokitasuna?

Datu bat: asteko, hilabeteko eta urteko euskarazko bideo ikusiena da «Klika KORRIKA 2019» (Iturria: tbx.eus). Hori esanda, orain, sermoia. Ez nolanahikoa, gainera. A zer erretolika gure oi lur hereje hontan...

Antza, adibidez, kantua Huntuak egin izan balu lasai legoke asalduen oldea. Salbu lirake orduan gure ume guztiak, eta hurrei abestia irakatsi beharrean diren irakasle gaixoak.

Ez daukat ezer soinu txikiaren aurka. Kontrara, nahiko nuke neure gaztetako mila koloretako Larrinaga Guerrini hura abilezia astindu gaur ere. Alaitz eta Maider izatearekin egiten genuen amets guk, pentsa! Hori bai, ez genion amets bati bakarrik jarraitu. Betidanik izan gara politeista eta infernu zale. Probatuta autodefinitu baikenen eklektiko: triki-pop, rock, folk, bossa nova, berdin jazz, eskas ez reggae, sarri punk eta gaur, plazer handiz, baita trap ere.

Periferiak ardatzean jartzea dakar Klikak. Aldatzea. Ausartzea. Iraungo badugu, berrikuntza, transgrezio eta iraultzarako imajinarioz soilik iraungo dugu. Batzuek ulertu edo ez. Bandera trap(u) bat da haizerik ez badabil. Tra tra!

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Abenduak 6 23:00etan
ESNE BELTZA
Kontzertua

Abenduak 7 23:00etan
MODUS OPERANDI
Kontzertua

Abenduak 8 23:00etan
ANESTESIA
Kontzertua

SZENATOKIA
arte eszenikoen plaza

ABENDUAK 7
19:00 BASERRI - Larrua Produzioak

ABENDUAK 8
19:00 MIKROANTZERKI SAIOAK
Tomiris: Atx Teatroa
Agur eta Dolore: Kamikaz Kolektiboa eta Ttak Teatroa
Schrodinger-en katua: Anodino Teatroa

ABENDUAK 9
18:00 INONDIK INORA - Benetan be

ABENDUAK 14
19:00 MUSIKA ESKOLAKO TALDEEN
GABONETAKO KONTZERTUA

ABENDUAK 15
18:00 GABON KANTAK - Centro Palentino Castellano Leonés

Sanagustinalde, 12 • Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustín
KULTUR
GUINEA
DURANGOKO UDA



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



BEA ILARDIA

EH Bilduren Bizkaiko ahaldun nagusigaia

Urte berri,
Bizkaia berri.

Bea Ilardia

ehbildu

MENDIA • ANBOTO

Iñaki Urresti (Atxondo, 1981) eta Mikel Urresti (Atxondo, 1986) anaiek Silvia Triguerosen inguruan landutako 'Tor' dokumentala estreinatuko dute Bilbao Mendi Film Jaialdian. Datorren asteko martitzenean izango da, 19:30ean, BBK aretoan. Hurrengo egunean bigarren emanaldi bat egongo da. Korrikalari abadiñarrak iazko Tor des Geants proban egindako lana —aurten irabazi egin du— da dokumentalaren abiapuntua, baina ez dira lasterketaren kontakizun hutsean zentratu. Goi mailara heltzeak eskatzen duen lana eta sakrifizioa ere erakutsi gura izan dituzte, Triguerosen beraren zein bere ingurukoan ahotik.

Zelan sortu zen dokumentala egiteko asmoa?

Iñaki Urresti: Mikel eta biok urteak genbiltzan musikaren munduan, taldeetan jotzen eta abar. 2014 inguruan ikus-entzunezkoen munduan sakontzeko gogo sortu zitzaidan. Mendia gustatzen zaigu eta, tematika hori erabilita, mendiko eskiari buruzko film labur bat egin genuen orain hiru urte. Mendi Film jaialdiko Mendishort lehiaketan aurkeztu, eta irabazi egin genuen. Lan luzeago eta zailagoei aurre egiten ahalegintzeko motibazio itzela eman zigun. Baina zer egin genezakeen?

Silvia Trigueros: Orduan, lagunartean, Izaban asteburu-pasa geundela, txantxetan esan nien: "Lasterketa luze bateko parte-hartzaile baten sufrimendua grabatu gura duzue?". Hain justu, urte horretan Tor des Geants proban parte hartuta nengoen, eta asko sufritu nuen. Handik gutxira, nire etxera etorri ziren proposamen horregaz.

I.U.: Berak esan aurretik, guri pasatu zitzaigun burutik ideia hori. Hasieran, proiektu lar handia zela pentsatu genuen, baina Silviak berak proposatu izana behar genuen bultzakada izan zen.

Eta proiektuarekin aurrera egitea erabaki zenuten.

I.U.: Bai. Bagenekien Silviagaz grabatzea erraza izango zela, laguna zelako, baina, aldi berean, horrelako lanetan esperientzia handirik izan barik, eta Silvia

“Bagenekien Silviaren ibilbideak merezi duen moduko zerbait egin behar genuela”

Urresti anaiek Silvia Trigueros korrikalariaren inguruan egindako 'Tor' dokumentala estreinatuko dute Bilbao Mendi Film Festival-ean, datorren asteko martitzenean



maila handiko korrikalaria dela kontuan hartuta, bagenekien ezin genuela edozer gauza egin, Silviaren ibilbideak merezi duen moduko zerbait egin behar genuela. Erantzukizun handia izan zen. Horrelako erronka bat motibagarria da, baina urduritasuna ere sortzen dizu.

S.T.: Niretzat ere erantzukizun handia izan zen. Urte arraroa neraman, lesioekin, eta, une batzuetan, entrenatzeko gogo faltagaz. Urte gogorra neraman, baina zelan esango nien ezetz, halako seriotasunagaz eta gogoz ikusita. Motibazio moduan ere hartu nuen.

Logistikoki zelako lana eskatzen du horrelako lan batek?

M.U.: Proiektua aurrera doan heinean, han eta hemen arazoak irteten hasten dira, udazkenean perretxikoak moduan. Bidea egin ahala ikasten joan gara. Ikasketa prozesu bat izan da guretzat.

I.U.: Irudien grabaketa zen erronketako bat. Grabazio ekipa sinple baina balioaniztunategaz joan ginen: aireko irudiak hartzeko dron bat, ohiko kamera bat eta beste txiki bat. Behin materiala hautatuta, beste erabaki batzuk hartu behar. Non eta noiz grabatu? Asierrek, Silviaren senarrak, ibilbidea ondo ezagutzen du eta

asko lagundu zigun. Erreferentzia horiek jasota, plangintza bat egin genuen.

M.U.: Behin hasitakoan, lasterketa ez zen geratuko. Ezin genion Silviari eskatu txarto irtendako plano bat errepikatzeke. Lasterketak bere erritmoa du eta ezin ginen atzean geratu.

S.T.: Beste lasterketa bat da.

M.U.: Hori da. Paralelo doan beste lasterketa bat. Eta lagun bi gara, ez hoge. Ahalegin fisiko eta estres psikologiko handia suposatu zigun. Lasterketa Silviak baino nekatuago amaitu genuela uste dut. Izerditan blai (barrez).

S.T.: Bazekiten zertan zebiltzan,

aurretik, Ehunmilak lasterketan, probak eginak zituztelako.

M.I.: Simulazio bat egin genuen Ehunmiletan.

I.U.: Tor-en zer aurkituko genuen jakiteko egin genuen. Hainbat lagun eta senitartekok lagundu ziguten. Bat sukaldari moduan, beste bat autokarabanagaz laguntzen... Guztiei eskerrak eman gura dizkiegu. Ehunmilak esperientzia gogorra izan zen. Lasterketa laburragoa da, baina arinago doa. 28 orduan Silviaren atzetik geratu barik!

Zer kontatzen du dokumentalak? Zein da transmititu gura izan duzuen mezua?

I.U.: Silviak palmares handia du, baina askok ez dute ezagutzen,

“Ez gara emaitzetan zentratu; hori lortzeko, atzetik dagoen lan dena ere erakutsi gura genuen”

normalean titularrak beste kirol batzuek eramaten dituztelako. Silviaren ibilbide hori islatu gura genuen, baina ez emaitzetan bakarrik zentratuta. Emaitza horiek lortzeko, atzetik dagoen lan guztia ere erakutsi gura genuen: entrenamenduak, ogibideagaz zelan uztartu, amatasuna, bere ingurua... Kontatzea merezi duten hainbat mezu daude eta, batzuetan, Silviaren ingurukoek kontatzen dituzte. Azkenean, lan handia dago atzetik helburuak lortzeko, jarrera kontu bat da. Horixe da mezua.

M.U.: Sarritan, helburuak irudikatzeraz zentratzen dira dokumentalak: helburua lortu den ala ez erakustera. Horren atzetik zer dagoen ere erakutsi gura izan dugu: lana, pertseberantzia, motibazioa... Bestalde, dokumentaleko musika guk geuk sortutakoa da.

Bilbao Mendi Film Festival-en ikusgai izango da dokumentala.

I.U.: Mundu guztitik punta-puntako lanak aurkezten dituzte Bilbao Mendi Film Festival-en, eta gu amateurrak izanda, sail ofizialean egotea itzela da.

ALBERDI
HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Gorka Otaduy pilotari berriztarra lehiatik kanpo dela, Olazar pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte

Otaduyk eta Ioritz Arrietak osatutako bikoteak 18-22 galdu zuen final-laurdenetan, errioxarren kontra

PILOTA • ANBOTO

Zaldibarko Olazar pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Atzo banakako lehenengo finalerdiak jokatuzituzten eta hurrengo egunean binakako zein lau t'erdiko finalak osatzeko falta diren partidua jokatuko dira.

Zoritxarrez, Gorka Otaduy ez da partidu horietako protagonista izango. Ioritz Arrietak eta biek galdu egin zuten final-laurdenetako norgehiagoka, Oscar Lerena eta Jorge Sanchez errioxarren kontra: 18-22. Bete-beteko partidua jokatuzuten, luzea eta gogorra. Hamabosna berdinduta egon ziren. Azken txanpan, nekeak eragindako hutsek desorekatu zuten balantza errioxarren aldera. Edozelan ere, berriztarra gustura egon daiteke erakutsi duen mailagaz.

Gipuzkoarrak faborito

Honenbestez, Lerena eta Sanchez finalaren atarian daude. Datorren asteko egunean jokatuko dute finalerdia, 21:30ean, Iraitz Zubizarreta eta Beñat Garmendia bikote gipuzkoarraren aurka. Azken hauek bikote sendoa osatzen dute eta adituek faboritotzat jotzen dituzte, baina alde handirik barik. Garmendia Aspe enpresagaz entrenatzen dabil eta datorren urte hasieran profesionaletan debutatzekoa da. Abenduaren erdian 21 urte egingo ditu.

Lau t'erdian Julen Osa eta Julen Egiguren gipuzkoarrek neurtuko dituzte indarrak. 18 urteko pilotari gazteak dira eta biek bizi mugitzen dute pilota. Egigurenek tantoa amaitzeko duen abilitadea erabakigarria izan daiteke.



Gorka Otaduy joan zen barikuan, Zaldibarren, final-laurdenetako partiduan. Julen Uribe

Jokaldia

Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia



Movember

Azaroaren etorrerarekin bat, hainbat dira bibotea uztea erabakitzen duten gizonak, baina zergatik egiten dute? Keinu honen helburua oso zehatza da, barrabiletako zein prostata minbiziaren inguruko kontzientzia sortzea. Bide batez gizonen artean aldikako errebi-sioak egiteko beharra zabalduz.

Movember mugimendua Australian sortu zen 1999. urtean, eta denboraren joan etorriarekin mundu osotik zabaldut den ekimena da. Ekintza hartan 80 bat gazte bildu ziren animalien aldeko kanpaina bat bultzatu nahian.

Lau urte geroago, Adelaida hiriko bi gaztek, minbiziak jota zegoen lagun bat lagundu nahian azaroan zehar beraien bibotea hazten uztea erabaki zuten. Beste 28 lagunek jarraitu zuten ekimena. Bibote bakoitzeko 10 dolar eskuratu zuten eta kide horiek izen berezia hartu zuten: Mo Bro. Talde horrek forma hartu zuen 2004. urtean Movember Foundation izenarekin.

Egun, fundazio honek 500.000 kide inguru ditu, eta 2003. urteaz geroztik 500 milioi euro batu ditu; diru horrekin 822 osasun-proiektu sortu dira.

Hainbat kirolarik pairatu dute gaixotasuna, agian errugbi munduan ezagunena Aaron Cruden All Blacks taldeko jokalaria dugu. 2008. urtean, 19 urte zituela, pare bat urte eman zituen tratamenduan. Ondoren, 2011. urteko mundiala irabazi zuen.

Durangoan, DRTk urteak daroaz Movember-ekin elkarlanean, eta azaro bukaeran jai berezia antolatzen du Mo Bro zein MO Sister guztiekin. Bertan bibote berezienak saritzen dira. Baietz zu ere datorren urtean Mo Bro-a bihurtu!

Asteko kirolaria

“Urtea zelan hasi nuen kontuan hartuta, goi-goian amaitzea sinestezina da”

Europako kros txapelketan urrezko eta brontzezko domina bana irabazi du

Asier Agirre durangarrak kasta handiko atleta dela erakutsi du aurten. Lesio batek buruko min handiak eman zizkion hainbat hilabetetan, baina zultotik irten eta goi-goian amaitu du denboraldia. Italian lehiatutako INAS Europako kros txapelketan brontzezko domina irabazi du kros laburrean, eta urrezkoa kros luzean.

Espero zenuen dominen borrokan ibiltzea?

Kros luzeiko urrezko domina sorpresa handia izan zen. Ez nuen espero. Bezperan, ondo estutu nuen gorputza kros laburrean brontzea irabazteko, eta horrek eragina izango zuela

uste nuen, baina, egia esanda, oso ondo ikusi nuen neure burua. Lasterketa arina izan zen. Frantziar batek lehiatu nuen urrezko domina. Berak erritmo aldaketak egiten zituen. Une batean atzean geratzen zen eta handik zati batera aurreratu egiten ninduen. Ematen zuen ni lehertu nahian zebilela. Helmutatik 500 bat metrora harrapatu eta atzean utzi nuen. Azken metroetan, neukan dena eman nuen, alboetara begiratu barik. **Domina bi hauek beste bat gehitu behar zaie: uztaileko aire libreko Europako txapelketan 10.000 metrotan irabazitako zilarra. Eskatu daiteke gehiago?**

Denboraldia zelan hasi nuen kontuan hartuta, ezin dezaket gehiago eskatu. Urte konplikatu izan da. Urteari ez nion sasoiko ekin eta, gainera, ondoren lesio txar bat izan nuen belaunean. Asko kostatu zitzaidan errekuiperatzea. Uztailean irabazitako zilarrezko dominatik aurrera, gora egin dut. Mugarri moduko bat izan zen niretzat. Urte hasiera zelan joan zen ikusita, denboraldia goi-goian amaitzea sinestezina da. **Oraintsu Durango Kirol Taldera batu zara.**

Bai, denboratxoa zeramaten nire atzetik eta, azkenean, batzea erabaki dut. Orain bi-hiru aste,



ASIER
AGIRRE SANTOS

Durango, 1989

Asturiasko lasterketa batean debutatu nuen eurekin. Gustura nago eta ezin dezaket gehiago eskatu.

Hurrengo urtean, zer itxaron dezakegu zuek?

2019ko lehenengo hitzordu nagusia otsailaren hasieran Santanderren izango den Espainiako kros txapelketa izango da. Horren ostean, Poloniako munduko txapelketa etorriko da, apirilean. Lesiorik ez badut, horietan aritzea gura nuke.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

Han ez banengo bezala
Slavenka Drakulic (2018)

HELDUENTZAT
HAN EZ
BANENGO
BEZALA
Slavenka Drakulic (2018)

ANIMALEN
ERREGEA
Miguel Tanco (2015)

UME ETA
GAZTEENTZAT
ANIMALEN
ERREGEA
Miguel Tanco (2015)

EL MAL
QUERER
Rosalía (2018)

Munduko salbamendu txapelketan maila ona eman dute Lucia Jimenezek eta Gonzalo Diazek

Diazentzat bere hirugarren munduko txapelketa izan da eta Jimenez estreinatu egin da

SALBAMENDUA • ANBOTO

Tabira Igeriketa Taldeko Gonzalo Diaz eta Lucia Jimenez durangarrek Salbamenduko Munduko Txapelketan parte hartu dute, Adelaidan (Australia). Batak zein besteak maila oso ona eskaini dute.

Diazentzat bere hirugarren munduko txapelketa izan da. Master mailako hainbat modalitatetan parte hartu eta birritan hamar onenen artean sailkatzea lortu du: zazpigarren geratu da 200 metroko oztopodun proban, eta bederatziga-

rrren igeriketa-surf modalitatean. Azpimarratzeko lana burutu du arraste proban (12. postuan), taulan (13) eta Ocean modalitatean (14).

200 metroko oztopo proban zazpigarren tokian sailkatzea lortu du Diaz durangarrek

Jimenezen estreinaldia

16 urteko Lucia Jimenez durangarrentzat estreinaldia izan da. Munduko txapelketan inoiz parte hartu gabekoa zen. Esperientzia bizitzea eta ikastea zituen helburu nagusi, baina ez da horregaz bakarrik konformatu. Oceanwomen modalitatean finalerdietara heldu da eta igeriketa-surf modalitatean finalera sailkatzetik postu baka-rrera geratu da. Etorkizunean zer eman dezakeen erakutsi du igerilari durangar gazteak.



Lucia Jimenez eta Gonzalo Diaz Adelaidan.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatzailer baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO
944 071 791

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
ABADIÑO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, egongela handia eta ganbara. **149.000€.**
MIKELDI. 115m. 4 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela handia. Ganbara. Eguzkitsua. **166.000€**
AUKERA. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. **140.000 €** (negoziagarria).
IURRETA. Dena berria. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela jarrita eta terraza. **120.000€.**
//ETXEBIZITZAK SALGAI
MENDIZABAL. 2 logela, bainugela, sukaldea, balkoia, egongela handia eta ganbara. **186.000€**
TABIRA. 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela, terraza, ganbara, eguzkitsua eta dena kanpora begira. **190.000€**
M. TORRE. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, terraza, ganbara eta garajea. **295.000€**
TXIBITENA. 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza, ganbara eta garajea. **209.000 €**
J. ICIAR. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza, eguzkitsua. Dena kanpora begira. **122.000€**
ZABALE (Ask. Etorbidea). 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza. **170.000 €**
ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dena kanpora begira, terraza eta garaje itxia. **220.000€.**
ANBOTO. Azken solairua, 3 logela, bainugela, egongela eta balkoia. Hegoaldera begira. **180.000€**
A.MEABE. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, ganbara eta garaje itxia. **260.000€**
SAN IGNACIO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela handia, trastelekua eta garajea. **235.000 €**
MENDIZABAL (ALLUIZ). 126m2. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, esekitokia, gabara eta garaje itxia. **295.000 €.**
IURRETA. 111m. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela handia, terraza 12m2, traselekua eta garajea. **276.000 €**
BERRIAK ESTREINATZEKO: 86m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza eta ganbara. **152.000 €**
SAN IGNACIO. 104m2. 3 logela, 2 bainugeka, sukaldea jangelarekin, egongela, ganbara eta garajea. **260.000€.**
BERRIZ. CASA RUSTICA. Unifamiliar. De 3 plantas. **195.000 €**
MATIENA. LAUBIDETA. 3 Hab. 2 baños. Cocina. Salón. 2 Terrazas. Vistas. Soleado.
LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea.
Egongela. Terraza. Ganbara. Camarote. Garaje opcional. **196.000€**
ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. **129.000€**
BERRIZ. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. **65.000€**
ZALDIBAR. 2 eta 3 logelakoa. Egizkitsua, dena kanpora begira eta berriztatua. **99.000€**
F.J. ZUMARRAGA 130m. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea jangelarekin, 2 terraza, ganbara. Garajea itxita bi autorentzat eta trastelekua aukeran. **285.000€**
ASK. ETORBIDEA: la berria. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, ganbara, garajea eta 66m2 terraza.
MADALENA. Duplexa egiteko aukera, azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela eta garajea. ORAIN: **260.000€**
J.A. AGIRRE: Azken solairua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela terrazarekin, 2 ganbara eta garajea.
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
ARTEKALE: 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. **83.000 €**
LOKALA. 50m2. Egokitua. **85.000€.**
DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. **138.000 €**
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA **150.000€** (Negoziaigarria)
IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. **500 €.**
ASK. ETORBIDEA. Garaje itxia. **18.800 €**



AMBOTO
INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO. Bi, eta lau logelako etxeak alokairuan. Hilean 750€-tik hasita.
//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Eraikin berria. Logela hiruko, azken etxebizitza salgai. 200.000.-€.
DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak
BERRIZ. HIRU LOGELAKO PISUA. KOMUNA ETA EGONGELA GANBARA ERE BADU. OSO EGUZKITZUA ETA MERKEA.
DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbarekin.
IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.
DURANGO. Montebideo kalean, logela biko pisua, bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.
DURANGO. Hegoalde kalean, izugarrizko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.
LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeo baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeo lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitzeo lursaila, 3.000 m2 inguruko azalarekin./
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA. Izugarrizko baserria salgai. Herrian beñan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatzeo, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeo. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatzeo.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.
//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia



Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com



ABADIÑO

670 m²

ABADIÑO. Familia biko baserria, 670m², 17.000m² lurzorua. Estructura eta homak egoera onean. Berriztatzeo.Kokapen eta sarbide ezinhobeak.

500.000€




ABADIÑO

1152 m² lurzorua

ABADIÑO: 1152m2 lurzorua familia biko etxebizitza bat eraikitzeo. Ikuspegi ederrak Durangoko gailurreriara.

300.000€



DURANGO

3 logela
2 komun

ANDRA MARI: 86m2. Etxebizitza eskusiboa eraikin enblematiko batean. Egoera onean: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta 2 bainugela. Berogailuan gaueko tarifa.

285.000€




BERRIZ

4 logela
119 m²

BERRIZ (Margarita Maturana): 119m2, 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela eta komuna. 30m2 terraza. Garajea eta trastelekua.

267.800€



IURRETA

3 logela
1 komun

IURRETA-MAXPE: 75m2, 3 logela, egongela jarrita, bainugela, balkoia itxita. Berogailua gas naturalarekin. Bizitzera sartzeko prest.

149.000€



DURANGO

2 logela
1 komun

JUAN DE ICIAR: 2 logela, egongela, sukaldea berriztatua jarrita, 2 despentsa eta bainugela berriztatua. Berogailua gas naturalarekin.

92.000€



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

//DURANGO
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000 € / E.E.Z =E**
ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. Lehen 250.000 orain **230.000 € /E.E.Z =F**
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000 /E.E.Z=F**
BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300 € / E.E.Z= G**
ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 210.000 € **ORAIN 190.000€ / E.E.Z=E**
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000 € /E.E.Z=E**
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500 € / E.E.Z=F**
KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **186.000€ /E.E.Z=F**
KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000 € / E.E.Z Bidean**
MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ **ORAIN 260.000 € / E.E.Z= E**
MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€ E.E.Z= F**
MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000 € / E.E.Z=E**
MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **290.000 € / E.E.Z=E**
PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 260.000 €/
ORAIN 245.000 € / E.E.Z=E
SASIKOA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, ganbara eta garaje itxia **259.000 € / E.E.E=E**
ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / **ORAIN 130.000€ / E.E.Z = E**
ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 € /E.E.Z=E**
//LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeo 600m2ko lur-sorua. **640.000€**
//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z Bidean**
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000 € / E.E.Z=E**
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000€ / E.E.Z= F**
//BERRIZ
ANDIKONA AUZOAZ Berreraikitzeo baserria, **460.000€**
BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z= F**
ELIZONDO AUZOAZ 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000 € / E.E.Z= G**
OLAKUETA PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 € / E.E.Z= G**
BERRIZBEITIA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta office **230.000 € / E.E.Z= Bidean**
//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000 €/
ORAIN 179.000 € / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.
//IURRETA
AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000€ / E.E.Z= E**
//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOAZ Baserria lurzorua, **350.000€**
ARTEKALE 2 logela, sukaldea, office, egongela, bainugela, balkoia. **75.000€ / E.E.E=E**
//BERRIAK
DURANGO-ANBROSIO MEABE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, ganbara eta garaje itxia. **265.000€ / E.E.Z=Bidean**
BERRIZ - BILBO ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia **195.000€ / E.E.E=E**
IURRETA - FAUSTE Baserria lurzorua, **220.000€ / E.E.Z=G**
MAÑARIA - EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara eta txokoa **180.000€ / E.E.E=Bidean**
OTXANDIO - ELIZABARRI 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€ / E.E.E=F**
ZALDIBAR - ZALDUA ELIZATEKO PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta trastelekua **150.000€ / E.E.Z=G**

HAUXE BAI JENEROA!

98 EMAKUME ETA 11 UME HIL DITU INDARKERIA MATXISTAK 2003TIK

INDARKERIA
MATXISTAREN
MAPA IKUSI DUT
BERRIA-N

ZER ONDORIO?

LIBRATU DIREN
BAKARRAK,
MOMENTUZ,
XIBERUTARRAK
IZAN DIRELA

@garbineubeda

Botikak

BARIKUA, 7 • 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 8 • 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 9 • 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 10 • 09:00-09:00

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 11 • 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 12 • 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 13 • 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak



Zorionak, **Kerman!** Eskerrik asko egunero emoten diguzun guztiagatik. Asko gure zaitugu!



Zorionak, **Aihotz,** zure 12. urtebetez, abenduaren 1ean. Oso harro gauz zutaz eta asko maite zaittugu. Ondo paseu egune.



Zorionak gure mutiko bereziari, bere hirugarren urtebetetzean etxeko danon partez. Eguna oso ondo pasatuko zenue-lakoan, musu handi bat, **Manex.**



Otxandioko **Ekaik** urte bi bete ebazan azaroaren 28an eta afari-merienda eder batez ospatu genduan bere eguna. Zorionak barriro be birramama Nati eta Gasteizko aitite-amama eta osaben partez!



Zorioxonak iurretatik, **Ander!** Txokolatie prestau, juengo gaz jaten eta. Musu potolo bat.



Zorioxonak, **Uma!** 11 urte, hamaika kontu ta abentura zurekin batera. Ondo ondo ospatu zure egune ta jarraitu zarena izeten. Gurdi bete patxo etxeko danon partez!



... habitik hegaz hasteko prest, gure neskatile. Zorionak!



Ekain Montecelok 13 urte bete ditu azaroaren 29an. Zorionak eta mosu handi-handi bat familia guztiaren partez!



Ibai Ondo

Ferreteria • Burdindegia

Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardogia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

“Elkarrizketak grabatzen ari garenean distantzia handia hartzen dut”

Hodei Zambrano zornotzarrak ETB1eko Ur Handitan programan dihardu lanean. Xabier Madariagak aurkeztutako saioan, askorentzat tabuak izan daitezkeen gaiak lantzen dituzte

AKUILUA • ANBOTO

**Barrenak astintzen dituen saio horietakoa da Ur Handitan. Gai ba-koitzari begietara begiratzen dion horietakoa, tabuak alde batera utzita. Hirugarren denboraldia abiatu zuten, orain aste bi, sexu abusuen gaia landuz. Saioan agertzen diren irudiak grabatu zein editatu, Zornotzako Beittu Bideo Factory ekoizte-
txeak egiten du. Hodei Zambrano eta Haizea Pastor dira ikus-entzunezko proiektu horren sortzaileak. Zambra-
nok ANBOTOren galderei prestutasu-
nez erantzun die.**

Hirugarren denboraldia jarri duzue martxan.

Azterrian egin genuen bigarrena, eta hirugarren honetan Euskal Herrira itzuli gara berriro. Gai sozialak lehenengo pertsonan kontatzen jarraitzen dugu. Haur-tzaroko sexu abusuen gaiagaz hasi ginen orain aste bi.

Gai deserosoak edo tabuak lantzen dituzue.

Gaiak ondo aztertzen saiatzen gara, eta elkarrizketatuen berbak lehenengo pertsonan jasotzen. Programa askotan adituak ager-tzen dira berba egiten, baina pertsona bat bere esperientzia kontatzen entzutea da ikusleari benetan eragiten diona. Ta-buak diren gaiei aurpegia jartzen diegu.

Aurreko denboral-dian azterrian izan zineten. Zelako esperientzia izan zen?

Ematen due-na baino gogorra-goia izan zen. Hala ere, es-

perientzia oso polita izan zen. Politikan sartu gara Venezuelen eta Nikara-guan. Herrialde batzuetan grabatzea arriskutsua izan da. Palestinan, esate ba-terako, tentsio une asko bizi izan genituen. Ezin genuen kamera atera.

Bidaia guztiak jarraian gra-batu zenituzten?

Bidaia binaka egin ge-nituen. Israel,

Palestina eta Miami. Mexiko eta Venezuela. Gero, hemen beste aste bi editzaten aritzen ginen.

Gai latzak landu dituzue azterrian. Zein izan da gehien hunkitu zaitue-na?

Denek ukitu gaituzte. Israelekoak eta Palestinakoak, esate baterako, asko hunkitu naute. Egunero bizi duten errepresioa ematen due-na baino askoz gehiago da. Han elkarrizketa bat grabatzen egon ginenean, kolonoak traba egitera etortzen zi-

ren. Kolono bat pistola bate-gaz egoten zen gure atzean.

Bestalde, Nepalen, pertsonen tra-fikoaren inguruko saioa grabatu genuen. Biktimekin aurrez aurre egon ginen unea ere latza izan zen. Umeak eta gazteak ziren.

Elkarrizketa hunkigarriak dira gra-batzen dituzuenak. Kamerak berak distantzia ematen dizu zure lana egin ahal izateko?

Elkarrizketak grabatzen ari gare-nean distantzia handia hartzen dut. Gero, editatzerakoan sufri-tzen dut. Grabazioan adrenali-na askatzen zaizu eta ezin zara pertsonaia guztiekin inplikatu. Ezin dituzu euren esperientziak zeureak balira bezala bizi. Baina, editatzerakoan, protagonistek esan dutena lasaitasunez entzu-ten dugunean, behin eta berriro, gelditu egin behar izaten dugu handik irteten eta negar egiteko.

Zelan erabaki zenuen kameralaria izatea?

Leioan kazetaritza ikasten hasi nintzen. Ekoiztetxe baten lanean hasi nintzen, eta une hartan nire ekoiztetxea sortzea erabaki nuen. Pertsona bik sortu genuen proiektua, Haizeak eta biok. Lana genuenez, karrera azkenengo urtean utzi genuen. Gurea teknikari lana da. Hasiera-hasieran, Zornotzako udalarentzat jaietako bideoak grabatzen hasi nintzen. Haizeak ka-meralari lanak egiten ditu eta nik editatu egiten dut. Beittu Bideo Factory deitzen da gure enpresa eta Zornotzan gaude. Ur Handitan programan Durangoko Baleuko ekoiztetxeagaz hasi ginen eta fun-tzionatzen duen formula da.

Kazetaritzan egindako ibilbideak ere lagunduko dizue lanean.

Bai, asko laguntzen du. Gidoilari bat dut ondoan, baina kazetari sen apur bat behar da produktu borobila izateko. Hau ez da entre-tenimendua. Ur Handitan progra-man ez dugu manipulatzeko esaten dutena. Horregatik, edizioa oso garrantzitsua da, gauzen zentzua ez aldatzeko. Morbotik aldentzen saiatzen gara.

Hodei Zambrano Troncoso

Editorea eta kameralaria
Zornotza | 1987

Lau horta

Bixente Aizpurua
Eguren
Irakaslea



Berreskura dezagun elkarbizitza!

XXI. mende honetan darama-gun bizitza lar azkarra eta ba-kartia da. Kanean ziztu bizian gabiltza, ondotik nor pasatu den ohartu gabe. Askotan bu-rurik ere altxatu gabe, inor agurtu gabe.

Bizi garen atarian ere ezeza-gunak egiten zaizkigu bertan bizi direnak. Igogailua dela edota hain ordutegi desber-dinak direla apenas ikusten dugu elkar. Eraikin berean pertsona arrotzez inguratuta daude. Lehen, etxe guztietako atea zabalik egoten ziren eta zerbait behar genuenean lasai joaten ginen ondokoarengana eskatzera, edo bera etortzen zen gurera. Orain atea sarrai-

Lehen, etxe guztietako atea zabalik egoten ziren eta zerbait behar genuenean lasai joaten ginen

la bereziekin ixten ditugu eta askotan kamerak eta alarmak jartzen ditugu, izugarrizko al-txorra gordeko bagenu lez.

Baserri inguruetan ere laster nabaritzen duzu nor den ber-takoa eta nor ez. Etorri berriek, sarritan, harresiz inguratzen dute etxea, bertakoei beldurra baliote lez.

Horrelako joerekin, nola sen-dotuko ditugu gure arteko harremanak? Bata bestearen beharra izanez gero, nola zu-zendu ondokoari?

Zein urrutia geratu diren lehengo auzolanak, auzota-rraren arteko erlazio zuzenak eta barre algarak.

Ea behingoz alde batera uz-ten ditugun joera baztertzai-le horiek eta laster benetako harreman zuzen eta goxoak berreskuratzen ditugun. Hala bedi!

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako
kriantzarik onena

